BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3892

AGINDUA, 2015eko abuztuaren 10ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioa – Fundación Donostia/San Sebastián 2016 fundazioaren estatutuetako 5. (helbidea), 11. eta 22. artikuluetan egindako aldaketak onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Ikusi eta aztertu da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2014ko martxoaren 27an sartu zen Herri Administrazio eta Justizia Sailean BSK Legal & Fiscal, S.L.P.k Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioa – Fundación Donostia/San Sebastián 2016 fundazioaren izenean eta ordezkaritzan egindako eskabidea, Fundazioaren estatutuetako 5. (helbidea), 11. eta 22. artikuluetan egindako aldaketak inskribatzekoa.

Eskabidearekin batera, estatutuak aldatzeko eskritura publikoaren kopia bikoitz baimendua aurkeztu da. Eskritura publiko hori 2014ko otsailaren 21ean egiletsi zuen Fundazioak Donostiako notario Enrique García – Jalón de la Lama jaunaren aurrean (protokolo-zk.: 236).

Juan Carlos Etxezarreta Villaluengak –Fundazioaren Patronatuko idazkari ez patrono gisa, eta lehendakariaren oniritziarekin– 2014ko otsailaren 13an emandako ziurtagiria du itsatsita eskriturak, Patronatuak 2013ko abenduaren 11n egindako bilerarena, zeinean, besteak beste, aho batez onartu baitzen Fundazioaren estatutuetako 5. (helbidea) eta 11. eta 22. artikuluak aldatzeko erabakia; hori guztia, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Fundazioaren Patronatuan duen ordezkariaren ordezko bat izendatzea ahalbidetzeko eta Fundazioaren egoitza-aldaketa jasotzeko.

Eskrituran, aldatutako artikuluen idazketa berria jasotzen da, osorik.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek, espedientea aztertu ondoren, ebazpen-proposamena eman dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Aipatutako artikuluak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioa – Fundación Donostia/San Sebastián 2016 fundazioaren estatutuetako 5. (helbidea), 11. eta 22. artikuluen aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa hori inskribatzeko agintzea, agindu honen data emanda, eskritura publikoan ezarritakoarekin bat etorriz. Eskritura hori –bertan, estatutuen aldaketa jasotzen da– Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioa – Fundación Donostia/San Sebastián 2016 fundazioak 2014ko otsailaren 21ean egiletsi zuen Donostiako notario Enrique García – Jalón de la Lama jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 236).

Inskripzio horren ondorioz, Fundazioaren helbidea hauxe izanen da: 1.2 Poligonoa, Easo kalea 41-45, 61. etxadia, Donostia.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abuztuaren 10a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.